| | |
|---|---|
| UAOaren 149.2. artikuluari jarraiki, akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira. | De acuerdo con el art. 149.2 del ROP, la presente Acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión. |
| Honako hau da artxiboaren identifikazio kodea: | El fichero resultante se identifica con el siguiente código: |

**0cVIY7IsLHJL5FbnfmiMPyCobmPyjqV0Yl2yc4I3B4U=**

| | |
|---|---|
| Grabazioa URL honetan aurki daiteke: | La grabación está disponible en la URL: |

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024091601

**HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN ETA ETXEBIZITZAREN BATZORDEA**
**2024ko IRAIALAREN 16an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**COMISIÓN DE MODELO DE CIUDAD, URBANISMO Y VIVIENDA**
**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 16 DE SEPTIEMBRE DE 2024**

**PARTAIDEAK / ASISTENTES:**

**BATZORDEBURUORDEA/ VICEPRESIDENTE:**
D. César Fernandez de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV)

**BATZORDEKIDEAK / VOCALES:**
Dª. Rocio Vitero Perez andrea (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Aitziber Salazar Arresti andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Xabier Ruiz de Larramendi Arana jauna (EH BILDU GASTEIZ)
D. Ekaitz Díaz de Garayo Sáez de Cerain jauna (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Ana Rosa López de Uralde Gómez andrea (PSE-EE)
D. Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE)
D. Pascual Borja Borja jauna (PSE-EE)
D. Iñaki García Calvo jauna (PP)
Dª. Marta Alaña Alonso andrea (PP)
D. Gustavo Antépara Benito jauna (PP)
D. Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV)
Dª. Miren Fernández de Landa Ruiz andrea (EAJ-PNV)
D.ª Garbiñe Ruiz Noriega andrea (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EQUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
D. Óscar Fernández Martín jauna (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EQUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
*Dª.* Ainara Mtz de Sabarte Agraz *andrea*

**BERTARATUTAKO BESTE ZENBAIT/ OTROS ASISTENTES:**
El Directora General de Urbanismo D. Mikel Intxaurbe Ocerinjauregui jauna Hirigintzaren zuzendari orokorra.

| | |
|---|---|
| Udaletxean, 2024ko irailaren 16an, goizeko 9:06an. | En la Casa Consistorial, a las 09:06 horas del día 16 de septiembre de 2024. |

| Gertakari hauen berri ematen da: | Se hacen constar las siguientes incidencias: |
|---|---|
| 9:10ean Salazar and. (EH BILDU GASTEIZ), López de Uralde and. (PSE-EE), Borja jn. (PSE-EE), Fernández de Landa and. (EAJ/PNV), Ruiz jn. (ELKARREKIN) irten dira.<br>9:19an Gurtubai jn. (EAJ/PNV) irten da eta 9:36an berriro itzuli da.<br>9:37an Alaña and. (PP) irten da eta 9:39an berriro itzuli da.<br>9:45ean Gurtubai jn. (EAJ/PNV) irten da eta 9:49an berriro itzuli da. | 9:10 la Sra. Salazar (EH BILDU GASTEIZ), la Sra. López de Uralde (PSE-EE), el Sr. Borja (PSE-EE), la Sra. Fernández de Landa (EAJ/PNV), la Sra. Ruiz (ELKARREKIN) salen.<br>9:19 el Sr. Gurtubai (EAJ/PNV) sale y se reincorpora a las 9:36 horas.<br>9:37 la Sra. Alaña (PP) sale y se reincorpora a las 9:39 horas.<br>9:45 el Sr. Gurtubai (EAJ/PNV) sale y se reincorpora a las 9:49 horas. |
| - Gai-zerrendako 4., 5. eta 6. gaiak batera jorratu dira. | - Los asuntos 4, 5 y 6 del orden del día se tratan conjuntamente. |
| - Gai-zerrendako 8., 9. eta 10. gaiak batera jorratu dira. | - Los asuntos 8, 9 y 10 del orden del día se tratan conjuntamente. |

**1.**
**GAIA:** **2024KO UZTAILAREN 15EAN EGINDAKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA.**

**N.º 1**
**ASUNTO:** **LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 15 DE JULIO DE 2024.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024091601?ts=51

| Baiespenez onartu da. | Se aprueba por asentimiento. |
|---|---|

**2.**
**GAIA:** **GASTEIZKO "LARREIN" 13. SEKTOREKO RCT-17 LURSAILAREN XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**N.º 2**
**ASUNTO:** **APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA RCT-17 DEL SECTOR 13 “LARREIN” DE VITORIA-GASTEIZ.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024091601?ts=61

| **ERABAKI-PROPOSAMENA** | **PROPUESTA DE ACUERDO** |
|---|---|
| 2024ko urtarrilaren 24an erregistratu zen | El 24 de enero de 2024 se registró en el |

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalean “Larrein” 13. sektoreko RCT-17 lursailaren xehetasun-azterketaren proiektua.

Xehetasun-azterketa horri Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko martxoaren 1eko ohiko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena. Erabakiaren xedapen-zatia 2024ko martxoaren 8an argitaratu zen El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, eta 2024ko martxoaren 11ko ALHAOn (30. zk.).

Jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Xehetasun-azterketaren xede den lurzatia "Larrein" 13. sektorearen eremuan dago. Dagokion plan partzialak arautzen du sektorea -zeina 2006ko maiatzaren 26an behin betiko onetsi eta 2006ko ekainaren 19ko ALHAOn (68. zk.) argitaratu baitzen-, baita plan partzialaren geroko aldakuntzek ere.

Xehetasun-azterketaren xedea da, egikaritze-laburpenak adierazten duenez, eraikinaren bolumena eta lerrokadurak aldatzea, ondoren partzelazioa egin ahal izateko eta "Larrein” 13. sektoreko RCT-17 lursaila hiru lurzatitan zatitzeko (RCT-17A, RCT-17B eta RCT-17C), eta sestra gaineko bolumena solairu batean handitzea, 13. sektoreko plan partzialaren ordenantza arautzaileetan zehaztutako gainerako parametroei eutsiz.

Dosierraren tramitazioan, Aireportu eta Aire Nabigazioko Zuzendariordetza Nagusiaren txostena jaso zen —2024ko maiatzaren 9an erregistratua—, zeina xehetasun-azterketaren aldekoa baita zortasun aeronautikoei dagokienez, betiere proposatutako eraikuntzek, instalazioek edo landaketek edo objektu finko edo mugikorrek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, palak barne, etab.) eta bide-azpiegituren galiboek zortasun aeronautikoak urratzen ez badituzte. Era berean, dokumentazioan Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen arau-planoa erantsi behar dela adierazten du txostenak, baita bertan adierazitako paragrafo bat ere.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz documentación relativa al Estudio de Detalle de la parcela RCT-17 del Sector 13 “Larrein”.
El citado Estudio de Detalle se aprobó inicialmente en sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local de 1 de marzo de 2024. La parte dispositiva del acuerdo se publicó el 8 de marzo de 2024 en El Correo (Ed. Álava) y en el Diario Noticias de Álava; y en el BOTHA nº 30, de 11 de marzo de 2024.

Durante el periodo de exposición pública no se recibió ninguna alegación.

La parcela objeto de este estudio de detalle está situada en el ámbito del Sector 13 “Larrein”. Este sector está regulado por su correspondiente Plan Parcial, aprobado definitivamente el 26 de mayo de 2006 y publicado en el BOTHA nº 68, de 19 de junio de 2006, y sus posteriores modificaciones.

El objeto del estudio de detalle, tal y como establece el resumen ejecutivo, es modificar el volumen y alineaciones de la edificación para posibilitar la posterior parcelación y dividir la parcela RCT-17 del Sector 13 “Larrein” en tres parcelas RCT-17A, RCT-17B y RCT-17C, aumentando en una planta el volumen sobre rasante, manteniendo el resto de los parámetros definidos por las Ordenanzas Reguladoras del Plan Parcial del Sector 13.

En la tramitación del expediente, se ha recibido el informe de la Dirección General de Aviación Civil, registrado el 9 de mayo de 2024, favorable en lo que a servidumbres aeronáuticas se refiere, siempre y cuando las construcciones, instalaciones o plantaciones propuestas u objetos fijos o móviles (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas, carteles, etc.), así como el gálibo de las infraestructuras viarias no vulneren las servidumbres aeronáuticas. También se indica en el ese informe la necesidad de incorporación a la documentación del plano normativo de Servidumbres Aeronáuticas del Aeropuerto de Vitoria y de un párrafo expreso en dicho informe.

2024ko ekainaren 18an, xehetasun-azterketa behin betiko onesteko dokumentazioa erregistratu zen Gasteizko Udalean. Hori da hasieran onetsitako dokumentuarekiko alde bakarra, eta ezin da haren funtsezko aldaketatzat hartu.

El 18 de junio de 2024 se registró en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz documentación para la aprobación definitiva del Estudio de Detalle. Esta incorporación es la única diferencia con el documento aprobado inicialmente, y no es susceptible de ser considerada una modificación sustancial del mismo.

Azkenik, 2024ko uztailaren 5ean, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak xehetasun-azterketa behin betiko onestearen aldeko txosten teknikoa egin zuen.

Finalmente, con fecha 5 de julio de 2024 por arquitecta del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística se ha emitido informe técnico favorable a la aprobación definitiva del Estudio de Detalle.

2024ko otsailaren 16ko txosten teknikoan jasotakoaren arabera, behin betiko onetsi nahi den hirigintza-dokumentuan aurkeztutako proposamenaren hirigintza-parametroek ez dituzte urratzen 2023ko otsailaren 7an hasieran onetsitako HAPO berriaren hirigintza-zehaztapenak (2023ko otsailaren 8ko ALHAO, 16. zk.).

Los parámetros urbanísticos de la propuesta presentada en el documento urbanístico objeto de aprobación definitiva no contravienen las determinaciones urbanísticas del nuevo PGOU aprobado inicialmente el 7 de febrero de 2023 (BOTHA nº 16 de 8 de febrero de 2023), según consta en el informe técnico de 16 de febrero de 2024.

Azaldutako aurrekariak kontuan izanik, beharrezkoa da arau hauek aintzat hartzea:

Teniendo en cuenta los antecedentes mencionados, es necesaria la consideración de la siguiente regulación:

Xehetasun-azterketak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean araututa daude.

Los estudios de detalle están regulados en la Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Lege-arau horrek 60. artikuluan adierazten duenez, tresna horiek hirigintza-antolamendu xehatua ezartzen laguntzen dute, eta 73. artikuluan zehazten duenez, haren xedea da antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzea edo egokitzea edozein lurzoru-motatan, eta xehetasun-azterketen bidez justifikatu beharko da hura osatzeko edo egokitzeko beharra edo komenigarritasuna, plangintzan aurreikusita ez badago.

Esta norma legal en su artículo 60 indica que contribuyen al establecimiento de la ordenación urbanística pormenorizada, precisando en el artículo 73 que su objeto es completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo y que la necesidad o conveniencia de la complementación o adaptación deberá justificarse por los propios estudios de detalle, cuando su redacción no esté prevista por el planeamiento.

73. artikuluaren 3. apartatuak zehazten duenaren arabera, xehetasun-azterketek ezin dituzte inola ere kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezartzen dituen aurreikuspenak urratu, edo horiei kasurik ez egin. Era berean, ezin izango dute lurzoruaren xedea aldatu, hirigintza-eraikigarritasuna handitu, ezta plangintzan ezarritako bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo murriztu

En este artículo 73, apartado 3 se determina que estudios de detalle en ningún caso pueden infringir o desconocer las previsiones que para su formulación establezca el planeamiento correspondiente. Asimismo, tampoco pueden alterar el destino del suelo, incrementar la edificabilidad urbanística ni suprimir o reducir viales o dotaciones públicas establecidas en el planeamiento,

ere, aurreko apartatuko b) letran xedatutakoari kalterik egin gabe.

sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado anterior.

Xehetasun-azterketen edukia zein agiritan formalizatu behar den, berriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 74. artikuluan xedatzen da.

Los documentos en los que ha de formalizarse el contenido de los estudios de detalle se fijan en el artículo 74 de la Ley 2/2006.

Legearen 98. artikuluak zehazten du nola izapidetu eta onetsi behar diren xehetasun-azterketak: hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarri behar dira hogei egunez, eta ondoren Udalari dagokio xehetasun-azterketak behin betiko onestea.

En el artículo 98 de esta Ley se recoge la tramitación y aprobación de estudios de detalle, indicando que una vez aprobados inicialmente y sometidos a información pública durante veinte días, corresponde al ayuntamiento la aprobación definitiva de los estudios de detalle.

Bestetik, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6.2 artikuluak salbuetsi egiten ditu xehetasun-azterketak ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitetik.

Por su parte, el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de Regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística excepciona en su artículo 6.2 a los estudios de detalle del sometimiento a la evaluación ambiental estratégica.

Behin betiko onespena emateko eskumena duen organoari dagokionez, Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i) artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Respecto al órgano competente para la aprobación definitiva, el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local atribuye al Pleno la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

Proposatzen den xehetasun-azterketarekin bat etorriz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, aipaturiko legeak kontuan harturik, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

De conformidad con el estudio detalle propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local eleva al Pleno de la Corporación el siguiente:

## ERABAKIA

## ACUERDO

1. Behin betiko onestea Gasteizko "Larrein" 13. sektoreko RU-17 lursailaren xehetasun-azterketa, 2024ko ekainaren 18an aurkeztutako dokumentuaren bertsioarekin bat etorriz, zeina dosierrean jaso baita.

1. Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela RCT-17 del Sector 13 “Larrein” de Vitoria-Gasteiz, de conformidad con la versión del documento presentada el 18 de junio de 2024 que consta en el expediente.

2. Erabaki hau Arabako Lurralde

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Araban zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitakoaren ildotik.

2. Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en el diario o diarios de mayor difusión de Álava en los términos previstos en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y el artículo 7 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluarekin bat etorriz.

3. El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, conforme al artículo 46.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**OSOKO BOZKETA**

Honako boto hauekin **ONARTU DA:**

**ALDE (13):**

Vitero Pérez and. (EH BILDU GASTEIZ)
Ekaitz Díaz de Garayo Sáez de Cerain jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Salazar Arresti and. (EH BILDU GASTEIZ)
Ruiz de Larramendi Arana jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Rodríguez Ramajo jn. (PSE-EE)
Borja Borja jn. (PSE-EE)
López de Uralde Gómez and.(PSE-EE)
Gurtubai Artetxe jn. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Ruiz and. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Manzanedo jn. (EAJ-PNV)
Antépara Benito jn.(PP)
García Calvo jn. (PP)
Alaña Alonso and. (PP)

**ABSTENTZIOA (2):**

Ruiz Noriega and. (ELKARREKIN

**VOTACIÓN DE TOTALIDAD**

**APROBADA** con los siguientes votos

**A FAVOR (13):**

Sra. Vitero Pérez (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ekaitz Díaz de Garayo Sáez de Cerain (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Salazar Arresti (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi Arana (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Rodríguez Ramajo (PSE-EE)
Sr. Borja Borja (PSE-EE)
Sra. López de Uralde Gómez (PSE-EE)
Sr. Gurtubai Artetxe (EAJ-PNV)
Sra. Fernández de Landa Ruiz (EAJ-PNV)
Sr. Fernández de Landa Manzanedo (EAJ-PNV)
Sr. Antépara Benito (PP)
Sr. García Calvo (PP)
Sra. Alaña Alonso (PP)

**ABSTENCIÓN (2):**

PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Fernández Martín jn. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

Sra. Ruiz Noriega (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Sr. Fernández Martín (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**3.**
**GAIA:** **GASTEIZKO ARETXABALETA-GARDELEGI 19. SEKTOREKO OR 7-1 A-B-C-G LURSAILAREN XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**N.º 3**
**ASUNTO:** **APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA OR-7-1 A-B-C-G DEL SECTOR 19 "ARETXABALETA-GARDELEGI" DE VITORIA-GASTEIZ.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024091601?ts=165

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

2024ko apirilaren 11n, "Aretxabaleta-Gardelegi" 19. sektoreko OR-7-1 a-b-c-g lursailaren xehetasun-azterketa sartu zen Gasteizko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan.

Maiatzaren 2an, beste agiri bat sartu zen aurrekoa ordezkatzeko, eta izapidetzeko.

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2024ko maiatzaren 14ko probidentziaren bidez, xehetasun-azterketa hori Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusira bidaltzea ebatzi zen, txostena egin zezan. Egun horretan bertan bete zen izapide hori.

2024ko ekainaren 12an, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak txosten teknikoa

**PROPUESTA DE ACUERDO**

Con fecha 11 de abril de 2024 tuvo entrada en el Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística de Vitoria-Gasteiz el Estudio de Detalle de la parcela OR-7-1 a-b-c-g del Sector 19 "Aretxabaleta – Gardelegi".

El 2 de mayo tuvo entrada nuevo documento, que sustituía al anterior, para proceder a su tramitación.

Por medio de providencia del Concejal Delegado del Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente de 14 de mayo de 2024, se resolvió remitir el Estudio de Detalle a la Dirección General de Aviación Civil del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana para la emisión del correspondiente informe. Trámite que se completó el mismo día.

Con fecha 12 de junio de 2024, se emitió informe técnico por arquitecta del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la

egin zuen, dosierra izapidetzen jarraitzearen alde, hasierako onespena ematearren.

2024ko ekainaren 28an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion Gasteizko Aretxabaleta-Gardelegi 19. sektoreko OR-7-1 a-b-c-g lursailaren xehetasun-azterketari. Halaber, dosierra 20 egunez jendaurrean jartzea erabaki zen, nahi zuen oroko aztertzerik izan zezan, baita egokitzat jotako alegazioak aurkezterik ere. Xedapen atala 2024 uztailaren 4ko El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan argitaratu zen, eta uztailaren 10eko ALHAOn (77. zk.). Jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik jaso.

2024ko abuztuaren 13an, Aireportu eta Aire Nabigazioko Zuzendariordetza Nagusiaren txostena jaso zen, zein xehetasun-azterketaren aldekoa baita, eta sustatzaileari helarazi zitzaion abuztuaren 19an.

2024ko irailaren 2an, agiri berria aurkeztu zen, eta bertan jasota zeuden Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak 2024ko ekainaren 12ko txostenean adierazitako aldaketak.

Azkenik, 2024ko irailaren 3an, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak aldeko txosten teknikoa egin zuen, non ondorioztatzen baitu xehetasun-azterketa udalbatzaren osoko bilkuran aurkez daitekeela behin betiko onetsi dezan.

Xehetasun-azterketa behin betiko onesteko agiria 2024ko irailaren 2an aurkeztutakoa da, eta bertan jasota daude agiriak izandako tramitazioa eta Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak 2024ko irailaren 12ko txostenean adierazitako aldaketak.

Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza

Ordenación Urbanística favorable a la tramitación del expediente para su aprobación inicial.

La Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el 28 de junio de 2024 aprobó inicialmente este Estudio de Detalle de la parcela OR-7-1 a-b-c-g del Sector 19 “Aretxabaleta – Gardelegi” de Vitoria-Gasteiz. En ese mismo acuerdo se resolvía someter el expediente a información pública durante 20 días para que pudiera ser examinado y se presentasen las alegaciones que se estimaran procedentes. De este modo, el 4 de julio de 2024 se publicó la parte dispositiva en el Correo (Edición Álava) y en el Diario de Noticias de Álava, así como en el BOTHA nº 77 el día 10 del mismo mes. Durante este período de exposición pública no se recibieron alegaciones.

Con fecha 13 de agosto de 2024 se ha recibido el informe de la Subdirección General de Aeropuertos y Navegación Aérea, favorable al Estudio de Detalle y se dio traslado al promotor con fecha 19 del mismo mes.

El 2 de septiembre de 2024 se presentó nuevo documento con las modificaciones indicadas en el informe de fecha 12 de junio de 2024, que se emitió por arquitecta del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística

Finalmente, con fecha 3 de septiembre de 2024 se ha emitido informe técnico favorable por arquitecta del Servicio de Planeamiento y ejecución de la ordenación urbanística concluyendo que cabe someter el Estudio de Detalle a la aprobación definitiva por el Pleno de la Corporación.

El documento para la aprobación definitiva del Estudio de Detalle es el último presentado el 2 de septiembre de 2024 que incorpora la tramitación seguida por el documento, así como las modificaciones indicadas en el informe de fecha 12 de junio de 2024, de la arquitecta del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística.

Según el Texto Refundido de la Revisión

Orokorraren Berrikuspenaren testu bateginak —behin betiko onetsia, eta 2003ko martxoaren 31ko ALHAOn argitaratua— ezartzen duenez, xehetasun aldaketa honen xede den lursaila “Aretxabaleta-Gardelegi” 19. sektorearen eremuan dago, eta dagokion plan partzialak eta berorren azken aldaketak (12.a) arautzen dute —plan partzialaren behin betiko onespena 2005ko abuztuaren 31eko ALHAOn (97. zk.) argitaratu zen; planaren azken aldaketa, 2016ko maiatzaren 13ko ALHAOn (54. zk.) —.

del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, aprobado definitivamente y publicado en el BOTHA. de 31 de marzo de 2003, la parcela objeto de este informe está situada en el ámbito Sector 19 “Aretxabaleta-Gardelegi”, regulado por su correspondiente Plan Parcial, aprobado definitivamente y publicado en el BOTHA nº 97 del 31 de agosto de 2005 y su última modificación, la 12ª, publicada en el BOTHA nº 54 de 13 de mayo de 2016.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren II. tituluko (“Plan Orokorraren Garapena") 2. kapituluan arautzen dira plangintza tresnak, eta 1. ataleko 3. paragrafoan ezartzen dira xehetasun-azterketek bete beharrekoak: 2.02.06 artikuluan horien helburua eta edukia zehazten da, eta 2.02.07 artikuluan, zehaztapenak eta jaso beharreko agiriak.

El Plan General Municipal de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz en el Capítulo 2 del Título II “Desarrollo del Plan General” regula los “Instrumentos de Planeamiento” estableciendo en el apartado 3 de la sección 1ª las determinaciones de los Estudios de Detalle y concretando en el artículo 2.02.06 el objeto y contenido de los mismos y en el artículo 2.02.07 las determinaciones y documentación que en cualquier caso deben contener.

Plan Partzialak 20. artikuluan arautzen ditu xehetasun-azterketak. Era berean, 28.c artikuluan xedatzen ditu lursailean aplikatu beharreko baldintzak eta parametroak, eta bertan adierazten dira xehetasun-azterketaren bidez alda daitezkeen altuerak. “Eraiki daitekeen altuera kopurua *–B+2+ atikoa, 10.50 metro erlaitzera– B+4+atikoa izatera (18,70 m) handitu egin ahalko da xehetasun-azterketa bidez, baldin eta 4.500 m2-tik gorako unitate eta multzoak badira eta alde batek SG.TC.2 bidera (OR-7-3 zonatik OR-7-10era) edo Zumabide ibilbidea-SG-TC-1 bidera (OR-7-1 zona edo etxadia) ematen badu. Eraikin altuago horiek aipatutako bideetarantz multzokatuko dira, eta lurzoru librea eta eraikin baxuak (B+2+a), berriz, sektorearen barnealderantz (mendebalderantz, lehenengoa, eta hegoalderantz, bigarrenak). Eraikin horien luzetarako ardatza aipatutako bide nagusiekiko paraleloa izango da".*

Por su lado, el Plan Parcial regula en su artículo 20 los Estudios de Detalle. Así mismo en su artículo 28.c establece las condiciones y parámetros aplicables a la parcela, señalando las alturas que podrán modificarse mediante Estudio de Detalle. “*El número de alturas edificables B+2+ático (10,50 m a cornisa) puede incrementarse, para aquellas unidades o agrupaciones de más de 4.500 m2, (a través de Estudio de Detalle) y que presenten frente al vial SG.TC.2 (zonas OR-7-3 a OR-7-10) o SG-TC-1 “Paseo de Zumabide” (zona o manzana OR-7-1), hasta B+4+a (18,70 m). Estas edificaciones de mayor altura se concentrarán hacia los citados viales, agrupando el suelo libre y las edificaciones bajas (B+2+a) hacia el interior del Sector (orientación oeste para la primera y sur la segunda). El eje longitudinal de las citadas edificaciones será paralelo a los citados viales principales”*

Halaber, lursail berean tipologia desberdinetako etxebizitzak izateko aukera ezartzen da puntu horretan. *"Lursail berean hainbat etxebizitza-tipologia izan ahalko da, hala nola familia bakarrekoak, bi familiakoak edo etxebizitza-multzo bertikal*

En el mismo punto, se establece la posibilidad de convivencia de distintas tipologías en la misma parcela. “*Podrán convivir en la misma parcela distintas tipologías de vivienda, como unifamiliar, bifamiliar o agrupaciones de viviendas*

*edo horizontalak, xehetasun-azterketaren arabera".*

*verticales u horizontales, de acuerdo con el Estudio de Detalle"*

